



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO


hitza



Larunbata
2010-02-27

VIII. URTEA 1939. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



HITZA

HELENA ORKOIEN ABESLARIA

«Alemaniara edo Italiara joango nintzateke, han aukera handiak daude nire lanbiderako»

IBARRA Madrilgo Villa Colmenar Viejo Kantu Txapelketan etorkizuneko gazteen saria irabazi du 23 urteko ibartarrak 7

Migel Mari Elozegi finalera begira jarri daiteke gaur

LEITZA 'Luze' bertsolaria Nafarroako Txapelketako finalurrekoan ariko da Iruritako Gizarte Bilgunean, 17:30ean. 4



Besteak beste, bizikleta gehiago jarri dituzte Usabal kiroldegian. E. EZEIZA

Usabal kiroldegian mantenu lanak egiten aritu dira

TOLOSA Astebetez itxita egon da Kiroldegia; «kalitatea bermatzeko» aldaketak egin dituzte 3

Emakumeen Egunaren harira hainbat ekitaldi

VILLABONA Martxoaren 8a ardatz hartuta, Hutsunea Betez elkarteak hitzaldiak, erakusketa, antzerkia... antolatu ditu martxoaren 2tik 13ra 5

PATXI GAZTELUMENDI BLOGARIA

«Internet alkoholarekin, autoarekin eta kirolarekin alderatuko dut»

ALEGIA Interneten erabilerari buruzko hitzaldia emango du blogariak martxoaren 3an; «bakoitzak bere hausnarketa» egin behar duela dio 6



L. TERRADILLOS

«Sahararentzat ospatzeko eguna da gaurkoa, festa handia»

RACHID SALEM ABDRAHMAN » Sahararra

Tolosa » Egutegian esanahi berezia duen eguna da gaurkoa sahararentzat, euren errepublikaren urteurrena.

INIGO TERRADILLOS

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zuteneko 34. urteurrena da gaur. Rachid Salem Abdrrahman (Tan Tan, Mendebaldeko Sahara, 1987) Tolosan bizi da beste hainbat saharar bezala. Oso egun berezia dela gaurkoa beraiantzat dio, «festa handia».

Gaurko egunak zer esanahi du zuentzat?

Egun berezia da, oso garrantzitsua, izan ere, gaurko egunez, duela 34 urte aldarrikatu zuten Saharar Errepublika Demokratikoa. Horregatik, festa handia da guretzat.

Nola ospatzen duzue?

Saharan astebete inguru irauten du festak. Saharar guztiak elkar-tzen dira, eta handik kanpo bizi direnak ere hara joaten dira egun

hauetan. Marokorengandik libre dagoen lurraldean ospatzen da bereziki. Ekitaldi garrantzitsuak egiten dira han eta agintariek ere hartzen dute parte. Saharar militarren desfilea egiten da, eta beste lurraldeetako jendea ere joaten da. Kazetari asko izaten dira, baita ere.

Nola ospatzen duzue hemen?

Hemen ere ospatzen saiatzen gara, egun berezia baita denontzat. Euskal Herriak elkartasun handia azaltzen die sahararrei, eta esaterako, gaur udaletxeko balkoietan gure bandera zintzilikatuko dute gure festa egunarekin bat eginez. **Beharrezkoa izango da Sahararik at ere babesa izatea.**

Bai, oso garrantzitsua eta beharrezkoa da. Izan ere, modu horretan ez gara bakarrik sentitzen eta aldarrikapenatarako indar handiagoa dugula sentitzen dugu.

Nola dago gatazkaren egoera une honetan?

Egoera oso txarra da. Marokok ez ditu giza eskubideak errespetatzen. Guztiak dakite hori eta ez da ezer ere egiten. Guk gure lurraldea berreskuratu nahi dugu, eta horretan jarraituko dugu tinko.

Igarondo Urpekoak taldekoek emaitza onak Ordiziako irekian

Kirola » Pasa den larunbatean hartu zuten parte; Munduko eta Espainiako Txapelketetan ariko dira laster.

ERREDAKZIOA

Aurreko larunbatean Ordizian X. Nazioarteko Irekia izan zen, eta bertan Tolosako Igarondo Urpekoak taldeak hartu zuten parte, emaitza «oso onak» lortuz.

Guztira, 16 taldek egin zuten igeri Ordiziako proban, eta tartean 5 munduko txapeladun ziren, Stefano Figini eta Andrea Nava euren artean. Hain zuzen ere, azken honen irabazi zuen proba orokorra 985 punturekin.

Igarondo Urpekoak taldeak 14 igerilariarekin hartu zuten parte. Tolosarrak nagusi izan ziren 100 eskafandrako proban. Mara Varelak eta Patxi Mongek lehenengo postua lortu zuten, Amaia Arregi taldekide berriak bigarren egin zuten eta Gregorio Mancisidorrek hirugarren. Emaitza bikaina, proban zegoen maila kontuan hartuta.

Mara Varelak ere bigarren postua lortu zuen 50 apnean, eta ondorioz, sailkapen orokorrean laugarren izan zen. Amaia Arregi, be-



Igarondo Urpekoak taldeko kideak. HITZA

rriz, bigarren izan zen baita ere 400 eskafandran.

Beste taldekide guztiak ere maila ona erakutsi zuten Ordizian; Ainhoa Tolosa, Inge Zubeldia, Nere Karrerak eta Leire Ramirez abiadurako probetan, Leire Gardetak iraupen probetan eta Adriana Gutierrez de Rozasek eskafandra probetan.

Mutilen artean Jokin Zubizarreta, Mikel Esteban, Inigo Sanz eta Asier Aranburuk abiadura probetan hartu zuten parte, eta guztiak marka onak ezarri zituzten. Hori dela eta, datorren hilabetean izango den Munduko Koparako sailkatu dira Igarondo Urpekoak

taldeko bederatzi igerilariak, eta San Jose zubian joango dira Italiara txapelketan parte hartzera, «emaitza onak lortzeko helburuarekin».

Txapelketekin jarraituz, Mara Varela, Ainhoa Tolosa, Inge Zubeldia, Nere Karrera eta Patxi Monge Euskadiko selekzioarekin joango dira Mallorcara (Herrialde Katalanak) Erkidegoen arteko Espainiko Txapelketan parte hartzera.

Negu bukaera gogorra dute, beraz, Igarondo Urpekoak taldekoek, baina «ilusio handiz eta gogotsu» daude, Jon Espina entrenatzailearen aginduetan.

Udalak Gorriti plazako kartela zegoen lekuan jar dezatela eskatu du

Tolosa » Udaleko arduradunek badakite nork hartu duen, eta hainbatetan eskatu diote kartela itzultzeko.

ERREDAKZIOA

Duela hilabete batzuk Tolosako Gorriti plazan zegoen kartel bat kendu egin zuten, eta horrek eztabaida sortu du herritarren eta be-



Kendu duten kartela. HITZA

reziki bertako bizilagunen artean. Izan ere, bizilagunek azaldutakoren arabera, 100 urte baino gehiago ditu kartelak, eta ez dute ulertzen zergatik kendu zuten. Hala, udaletxera eta Udaltzaingora joan omen dira galdetzeraz, eta ez diotela informaziorik eman adierazi dute.

Bada, Udalak jakitera eman duenez, «identifikatuta dago kartela edo seinalea kendu zuen laguna, eta hori bere familiarena dela uste zuelako egin zuen». Udaletik azaldu dute hainbatetan hitz egin dutela kartela hartu zuen herritarrekin, eta hura bere lekuan jarrezko eskatu diotela.

Oinkari dantza taldeak 'Triki dance sessions' eskainiko du gaur gauean

Villabona » Bermeon izango da emanaldia 21:00etatik aurrera, Ibilaldia 2010 jaialdiaren barruan.

ERREDAKZIOA

Villabonako Oinkari dantza taldeak eta Mungiako Korrontzi Folk taldeak elkarlanean beraien *Triki dance sessions* izeneko ikuskizun berria eskainiko dute gaur gauean. Bermeoko Artza pilotalekuan izango da emanaldia 21:00etatik aurrera.

Ikuskizun hori Ibilaldia 2010 jaialdiaren barruan eskainiko dute billabonatarrek mungiatarrekin batera, eta bertan *triki dance sessions* ikuskizuna eskaintzeaz gain Ibilaldia 2010eko abestia eta bideo-clip-a ere emango dituzte ezagutuz. Aurtengo Bizkaiko Ikastola aldeko Ibilaldia maiatzaren 30ean ospatuko da Bermeon *Marrigoran kikinbera* lelopean. Hain zuzen ere, Korrontzi Folk taldea arduratu da jaialdiko abestia pres-tatzeaz.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Udalak zenbait ohar eman ditu iragarritako haizete handiak direla eta

Gizartea » Gaur arratsaldetik aurrera dago emanda alerta; ateak ixtea eta toldoak jasotzea gomendatzen da.

ERREDAKZIOA

Asteburu honetarako iragarrita dauden haize bortitzen aurreikuspenak kontuan hartuz, eta Eusko Jaurlaritzako Larrialdietako Zuzendaritzaren argibideei jarraituz, herritarrei hainbat gomendio eman nahi izan dizkio Udalak, plazaratutako ohar baten bidez.

Oharrean adierazitakoaren arabera, ate, leiho eta toldoak itxi eta ondo tinkatzea gomendatzen dute. Baita lorontziak eta kalera erori daitezkeen gauza guztiak kentzea ere. Bestalde, jakitera eman dutenez, prebentzio eta segurtasun neurri gisa haize guneetan dauden zaborrontziak ez hustutzeko neurria hartu da (pisuaren eraginez mugitzea saihesteko), hori dela eta gaur gauean zaborra ez ateratzea eskatu dute.

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen. 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Paisaiari buruzko argazki ikastaroa prest

Kultura » Hiru hilabeteko iraupena izango du eta Iñigo Royo izango da irakaslea; martxoaren 12a arte eman daiteke izena.

ERREDAKZIOA

Paisaiari buruzko argazki ikastaroa antolatu du Tolosako Udalak. Martxoaren 22an hasiko dira eskolak eta ekainaren 21era arte luzatu. Jardunaldiak lau atal berdinetan egongo dira banatuta. Alde batetik, paisaia urbana landuko da; bestetik industrial; gero, gauekoa eta azkenik, naturala. Horrez gain, photoshop erabiltzen ere ikas-



Iñigo Royo izango da ikastaro honetako irakaslea. N. LATABURU

siko da eta irteerak egingo dira. Jardunaldi hauek hamasei urte baino gehiago dituen eta argazkigintza gustuko duen edozeini zuzenduta daude.

Aurreko ikastaroetan bezala, Iñigo Royo izango da irakaslea. Saioak astelehen eta asteazkenean izango dira 18:30etik 21:30era bitartean.

Antonio Maria Labaien Kultur Etxean izango dira jardunaldiak. Interesatuak jada eman dezakete izena. Horretarako Kultur Etxera jo dezakete martxoaren 12a baino lehen edo telefonoz deitu 943 67 03 83ra. Gehienez 12 lagunek hartu ahal izango dute parte ikastaroan.

Inauteriak indarrak hartzeko eta hobetzeko aprobetxatu ditu Usabalek



Usabalen egin diren aldaketen berri atzo eman zuten Asier Bakaikoa, Oscar Renedo eta Asier Martinek. E. EZEIZA

horietan, era ezberdinetako 76 jarduera burutu dira.

Atzo aurkeztu zituzten Kirolzer enpresako arduradunek eta Tolosako Udaleko ordezkariak egindako aldaketak. Besteak beste, dutxetako uraren arazoak konpondu dituzte, bizikleta gehiago jarri dituzte gimnasioan, rokodromoan ibilbideak aldatu dituzte eta padeleko pistako hesia aldatu dute.

Oskar Renedo zinegotziaren esanetan, «kalitatea bermatzeko mantenua puntu garrantzitsuenetako bat da». Hori dela eta, Kiroldegia itxita dagoen garaia aprobetxatu dute, hobekuntzak egiteko.

Egindako aldaketetako batzuk, Kiroldegiko jarraipen taldearen proposamenen haritik etorri dira. Izan ere, duela bi urtetatik, bazkideez osatutako lan talde batek Kiroldegiaren egoeraren inguruko jarraipen bat ematen du, ikusten dituzten hutsune eta akatsen berri emanaz.

Aurrera begira, Asier Bakaikoa teknikariak atzoko agerraldian agertu zuen, garrantzitsua dela talde horretarako kide berriak gehitzea eta lan taldea handitzea.

Egun 8.600 bazkide inguru ditu Usabal kiroldegia eta inguruko herrietako jende ugari itxaron zerrendetan dago.

Kirola » Astebetez itxita egon da kiroldegia eta tarte horretan aldaketa nahiz berrikuntza ugari egiteko erabili dute.

ESTI EZEIZA

Inauterietan jendea parrandan eta jai giroan murgilduta egon den bitartean, Usabal kiroldegian hainbat aldaketa eta berrikuntza egiteko aprobetxatu dute. Astebetez itxita egon da kiroldegia eta, egun



Berrikuntzen artean, rokodromoan ibilbideak aldatu dituzte. E. EZEIZA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Taberna-zerbitzaria.** Tolosaldean taberna-zerbitzari bat behar da ostiral eta larunbatetarako. Interesatuak deitu 650 04 31 39ra.

■ **Eskaintza.** Bigi garbitasunak, alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo

konpromisorik gabe. Telefono zenbakia: 638 94 46 04 (Gurutze) eta 695 70 82 71 (Belen).

SALGAI

■ **Motorra.** KTM 125 SX. 1998koa, ondo zainduta. Deitu ondorengo telefono zenbakira: 651 70 90 23.



Nafarroako Bertsolari Txapelketan hiru leitzar hasi ziren, egun 'Luze' bakarrik gelditzen da. HITZA

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren azken txanpan aurkitzen da 'Luze'

Leitza » Migel Mari Elozegi finalaurreko saioan egongo da gaur; Iruritan sei bertsolari ariko dira 17:30etik aurrera.

Bertan sei bertsolari izanen dira, bertean Migel Mari Elozegi, *Luze*, leitza. *Luzerekin* batera Iñaki Aleman, Iñigo Olaetxea, Xabier Legarreta, Julen Zelaia eta Iñigo Ibarra ariko dira.

bai saiorako sarrerak eskuratzeko eta baita finalerako sarrerak eskuratzeko ere.

Finala Lesakako pilotalekuan jokatuko da martxoaren 20ean, larunbatean, 17:00etatik aurrera.

Finala Lesakan,

Lehen sailkatuak zuzeneko txartela lortuko du Lesakako finalerako eta gainontzeko bostak puntuazioen zain egon beharko dute, Atarrabiako finalaurrekoan erabakiko baita zortzi finalistak nortzuk izango diren.

Iruritan takila 16:00etan zabalduko da. Bertan aukera izango da

Lehen finalaurrekoa

Etxarri Aranazen beste sei bertsolari aritu ziren lehen finalaurrekoan. Julio Sotok (421) finalerako txartela lortu zuen, puntu gehien bildu ostean. Ondoren Estitxu Arozana Albizu (397), Oskar Estanga (392), Xabier Terreros (390.5), *Iturri* (370.5) eta Saioa Alkaiza (336) gelditu ziren.

Urrezko eta brontzeko bina domina ekarriko dituzte eskualdera

Sokatira » Lander Oterminek urrezkoak lortu eta Onintza Iraolak brontzekoak, Abadiño A eta Sakana taldeekin.

nezkoen 600 kiloko txapelketan lortu zuten bizkaitarrek, finalean Bremore (Irlanda) mendean hartuta. Herenegun 560 kilokoan lortu zuten lehen postua. Lander Otermin tiralatazailer ibartarra bezaraz, bi dominekin itzuliko da.

ERREDAKZIOA

Abadiño A-k urrezko bigarren domina kolokatu zuen atzo Cesenaticoko Cilcolo Tennis Klubean (Italia), TWIFek antolatuta jokatzeko aritzen Munduko Sokatira Txapelketan. Urrezko domina hori gizo-

Onintza Iraolak bi brontzeko Goma gaineko Munduko Sokatira Txapelketaren baitan, Hernialdeko Onintza Iraolak bi domina irabazi ditu Sakanarekin. 540 eta 500 kilotan, Sakanako taldeak bi hiru-garren postu lortu baititu.



Pakita Arregik badu bere diploma

ARESO » Atzo, hilak 26, Euskaltzaindiak izendatu berri dituen ohorezko euskaltzainei diplomak eman zizkien. Ekitaldian zortzi ohorezko euskaltzain izan ziren eta «euskararen aldeko merezimendu bikainak» aitortzen dituen Euskaltzaindiaren diploma bana jaso zuten. Horien artean Pakita Arregi aresoarra aurkitzen zen. HITZA



SARIDUNAK

① Otordua

Adunako ZABALA sagardotegian 2 pertsonentzako otordua

Jose Antonio Urretabizkaia Otamendi (Villabona)

HITZA jarriko da irabazlearekin harremanetan



Garagartza baserria
20150 Aduna
Tel.: 943 690 774
www.rzabala.com

② Kirol materiala

Lagun Aro GBC saskibaloit taldearen baloia eta bufanda

Mari Jose Izagirre Arandia (Alegia)

HITZA jarriko da irabazlearekin harremanetan



③ Diskoa

Gaztelupeko hotsak etxeak eskeinia
Bill Lyerly Band- en "Too Hurt to cry" diskoaren 2 ale

Haritz Arana Saralegi (Tolosa)
Arantxa Gorostidi Etxaleku (Anoeta)

HITZAren Tolosako bulegotik pasa saria jasotzera



④ Diskoa

Gaztelupeko hotsak etxeak eskeinia
Travelling Brothers- en "Red, Hot & Blue" diskoaren 2 ale

Jose Ugartemendia Armendariz (Berastegi)
Jose Mari Gorostidi Armendariz (Altzo)

HITZAren Tolosako bulegotik pasa saria jasotzera





Hutsunea Betez elkarteak kideetako batzuk, kasu honetan, azaroak 25eko eguna antolatu zuten. E. MAIZ

Egitarau oparoa prestatu du Hutsunea Betez elkarteak

Villabona » Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, hitzaldiak, erakusketa, antzerkia, bazkaria... prestatu dituzte.

ENERITZ MAIZ

Eskualdeko herri gehienetan bezala, Villabonan ere, martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna gogorazteaz gain ospatu ere egin dute. Villabonan dagoen Hutsunea Betez Elkarteak egitarau oparoa prestatu du martxoaren 8aren inguruan, ekintza ezberdinak prestatuz.

Ekintzak tartekatuz sei egunetan banatu dituzte ekitaldiak eta gustu eta era guztietakoak izango dira. Hasteko eta eguna iritsi aurretik, martxoaren 2an, asteartean, Emakumei eta Kirolari (Lilaton lasterketa) lotutako DVD proiektzioa eskainiko dute. Udaletxeko balio anitzeko gelan izango da, 17:30etan hasita.

» EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA, ASTEKO EGITARAUA

■ **Martxoak 2, asteartea**
■ **DVD proiektzioa.** Emakumei eta kirolari buruzkoa (Lilaton lasterketa). 17:30ean, udaletxeko balioanitzeko gelan.

■ **Martxoak 8, astelehena**
■ **Pintura erakusketa.** Inaugurazioa 18:30ean, Gurea Zinemako erakusketa gelan. Ostirala bitarte egunero egongo da 17:00etatik 20:00etara.
■ **Elkarretaraztea.** 20:00etan Malkar Plazan.

■ **Martxoak 8, eguna**
Astelehenean, eta Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Hutsuneak Betez Elkarteak kideek, Pintura Erakusketa inauguratuko dute Gurea Zinemako erakusketa gelan. 18:30ean izango da inaugurazioa eta bertan izango diren pintura lanak emakumearen ingurukoak dira. Erakusketa aste osoan zehar, hau da, ostirala bitarte ikusgai egongo da 17:00etatik 20:00etara.

Jarraian, 20:00etan elkarretaraztea egingo dute herriko Malkar Plazan.

Asteazkenean, martxoak 10, hitzaldia-egutaria izango da. Bertan Carmen Ferro herriko emaginak zuzenduta, *Comunicando sentimientos y emociones* gaiaren inguruan ariko dira 19:00etatik 20:00etara udaletxeko balio anitzeko gelan.

Martxoak 11, osteguna, Ongizekin tailerra (gizentasun berriak) izango dute; *Claves del sexismo, nuestra participación en su cons-*

■ **Martxoak 10, asteazkena**
■ **Hitzaldia-Egutaria.** *Comunicando sentimientos y emociones*, Carmen Ferro herriko emaginak zuzenduta izango da 19:00etatik 20:00etara udaletxeko balio anitzeko gelan.

■ **Martxoak 11, osteguna**
■ **Tailerra ongizekin.** *Claves del sexismo, nuestra participación en su construcción y destrucción*, 20:00etatik 22:00etara Zinemako erakusketa gelan.

trucción y destrucción izenburupean. Tailerra, 20:00etatik 22:00etara izango da Gurea Zinemako erakusketa gelan.

Martxoaren 12an, ostiralez, antzerkia ikusteko aukera izango da. Ausarta izeneko antzerki taldea da eta eskainiko duten obraren izena, *Central Park West* da. Sarrera doan izango da eta Gurea Zinemaren izango da 22:00etan.

■ **Triki-poteoa eta bazkaria**
Martxoaren 13an, larunbata, 12:00etan Berdura Plazan elkartuko dira eta Triki poteoa egingo dute. Musika lagunduta, poteoan ibili ostean, 14:30ak alderako Zizurkilgo Olentzo Jatetxera gerturatuko dira bazkaltzera.

Bazkal ostean, jatetxean bertan dantzaldia ere izango dute. Bazkariaren kostua, 16 eurokoa da eta harremanetarako edo informazio osatuago jaso ahal izateko, bi telefono zenbaki lutzatu dituzte: 943 69 05 05 (Begoña) eta 658 24 36 92 (Engrazi).

■ **Martxoak 12, ostirala**
■ **Antzerkia.** Gurea Zinemaren Ausarta taldearen *Central Park West* antzerkia, 22:00etan hasiko da eta sarrera doan izango da.

■ **Martxoak 13, larunbata**
■ **Triki poteoa.** 12:00etan Berdura Plazatik abiatuko dira.
■ **Ondoren.** Bazkaria eta dantzaldia izango dituzte Zizurkilgo Olentzo Jatetxean 14:30etik aurrera. Bazkaria joan nahi duenak 16 euro ordaindu beharko ditu.

Eski alpino edo snow board egiteko aukera Luz Ardidenen

Eskia » Villabonako eta Zizurkilgo Udalek antolatu dute irteera. Izena emateko azken eguna martxoaren 1a da.

E. MAIZ

Eski alpino edo snow board egiteko aukera izango dute Luz Ardidenen 12 eta 20 urte (1990-1997 jaioetakoak) arteko gazteek. Irteera hau Villabonako eta Zizurkilgo Udalek antolatu dute elkarlanean.

Luz Ardidenera joateko irteera martxoaren 13an, larunbatez izan-

go da eta bidaiaren kostua, adin txiki-koentzat 25 eurokoa da. Aldiz, adinez nagusi direnrek 35 euro ordaindu beharko dituzte. Billabonatarak edo zizurkildarrak ez diren kasuan berriz, 50 euro ordaindu beharko dira.

Bidaian joan ahal izateko, honako hauek aurkeztu beharko dira: dirua, NAN-a eta gurasoen baimen-orkia. Izena emateko azken eguna, martxoaren 1, astelehena izango da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 69 44 58 Gazte Bulegoko telefonora deituz eskuratu daitezke.



Iaz, ibilaldia hasteko irteera eman zain parte hartzaileak. AIZKARDI

Martxoaren 28an Aizkardiko ibilaldia

Villabona » Izena emateko epea martxoaren 1etik 26ra zabalik egongo da eta dohainik da. Egunean bertan ere eman daiteke.

E. MAIZ

Martxoaren 28an izango da Aizkardi Mendi Taldeak antolatzen duen Aizkardiko ibilaldia. Aurtengoa 42. Aizkardiko Ibilaldia izango da. Izena ematea dohainik da eta martxoaren 1etik 26ra eman daiteke edo egunean bertan. Informazioa jaso nahi izanez gero 649 717 182 telefonora astelehenerik ostiralerara, 20:00etatik 22:00etara deituz, www.aizkardi.com edo ibilaldi@aizkardi.com helbidera idatziz eskura daitezke.

■ **Ibilaldi luzea, 42 kilometro**
Ibilbide luzea, Bederatzigarren Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuiturako baliagarria da. Bertan, 14 urtetik gorakoek hartu dezakete parte eta 42 kilo-

metro luzera izango du. Desnibela berriz, 2.250 metrotakoa du eta gutxi gorabehera bederatzirordutan egin daiteke. Irteera 07:00etan izango da eta hau da ibilbidea: Villabona, Otieta (Leitzarar), Lapurtxulo, Onddo (780m), Azketa (832m), Leuneta (880m), Abadekurutz (984m), Mandoegi (1.045m), Kondizatzeke lepoa, Leitzarar, Gorosmendi, Mugaga, Urdelar (858m), Belabieta, Komizar eta Villabona.

■ **Ibilaldi motza, 24 kilometro**
Ibilaldi motzak 24 kilometrotako luzera izango du eta 1.150 metrotako desnibela. Ibilaldia bost orduetan egiteko modukoa da gutxi gorabehera. Irteera ordua 08:00etan izango da. Kasu honetan honako hau izango da ibilbidea: Villabona, Otieta (Leitzarar), Lapurtxulo, Astabizkar (575m), Amasola (Leitzarar), Praxku, Kanal Handia, Lastur eta buelta Villabonara.
Ordu aldaketak izan dira eta antolatzaileek adi ibiltzeko deia luzatu dute.

E Elkarrizketa

PATXI GAZTELUMENDI » Blogaria

«Bakoitzak bere hausnarketa egin behar du interneti buruz»

Alegia » Behin interneti beldurra kenduz gero, «sorkuntzarako tresna» bilakatzen dela dio Gaztelumendik, «izugarrizko eragina» duena.

IMANOL GARCIA

Internet eta teknologia berriak etxean eta familiak hitzaldia eman-gu du Patxi Gaztelumendik (Lar-rabetzu, 1972) martxoaren 3an, asteazkena, 18:00etan Alegiako Kultur Etxean. Abenduan bete ditu bost urte bere www.gaztelumendi.org blogak. Bertan «kontu pertsonalak, zaletasunak, iritzia-ki, gertaerak... denetarik joan da», azaltzen du Gaztelumendik.

Nondik helduko diozu Alegian eman behar duzun hitzaldia?

Internet alkoholarekin, autoarekin eta kirolarekin alderatuko dut. Galdetzen didatenean autoa ona den, edo alkohola ona den, edo kirola ona den, zer pentsatua ematen dit. Galdetzen didatenean internet ona den haurrentzat edo ona den gurasoentzat, adibide horiek jar-tzen ditut. Normaltasunez bizitze-aren hautua da. Hortik bideratu nahi dut, gaia etxekotu: hedabide-etatik igortzen den mezuaz aparte, bakoitzak bere hausnarketa egi-tea. Hau da, nola erabiltzen duen gauza bat edo bestea, telebista edo boligrafoa izan. Boligrafoa erabili daiteke sortzeko edo beste bati be-gietan sartzeko. Bestalde, internet-ek izan ditzakeen eragin onak jo-rratuko ditugu. Arriskuez ere hitz egin beharko dugu, baina gehiago edukit dezakeen eragin onei buruz.

Zeintzuk dira eragin horiek?

Elkarrekin eragingo dugun gogoeta bat izango da. Behin hari hori bota-ta, ikustea jendeak zer esperien-tzia duen eta horiek elkarbanat-zea. Jasotzen diren mezuak, batez ere hedabide handietatik, ehuneko handi batean, internet eta gazteak aipatzen dituztenean suizidioak, bortxaketak, lapurre-tak eta horrelakoak izaten dira. Orain arte gazteekin lotutako al-bisteak beti ezkorrak izan dira.

Horretaz konturatu dira hamar urte beranduago eta orain gazteak erakarri nahi dituztenez, beste mezu bat eman nahi diote gazteei. Internetekin hori gertatzen ari da. Berandu dabilta hedabideak, are-rio bezala ikusten dute eta fobia erakusten dute modu ezkutu bate-an. Adibide on gutxi, adibide peda-gogiko gutxi, adibide familiar gutxi azaltzen dituzte, baina gero inter-net erabiltzen dute iturri bezala edo promoziorako. Ematen duten mezuaz ezkorra da. Beraz, gu geuk egin behar dugun gure hausnarketa. Ez dadila izan batek esaten duena, prozesu partekatua izan dadila. Alde horretatik interesgarria izan-go litzateke hitzaldira etortzen di-renak parte hartzeko gogoarekin etortzea. Esperientzia trukaketa bat izatea eta ez meza bat.

Zure blogean internet erabiltzea, esperimintatzea, bultzatzen duzu.

Nik uste dut hori egin behar dela, eta ematen digu aukera burura-tzen zaizkigunak praktikara era-mateko. Zuk izan duzun ideia, sus-mo edo gogo bat, ziur munduko beste txoko batean gauzatu dutela edo batera gauzatu daitekeela. Txiki horri, herri txikiak, kultura txikiak, hizkuntza txikiak, auzo-ak... nolabait boteretik at daudenei aukera paregabea ematen zaie, bai eskolarako, bai kultur elkarteeta-rako, bai bestelako proiektuak egi-teko. Alde horretatik Alegian eta inguruan gauza batzuk egin dira, Txintxarrisferaren inguruan eta. Nik uste dut zer partekatu badago-ela eta horiek, datorren asteko hit-zaldira hurbilduz, etxekotu dai-tezkeela, eta beldurra kendu tres-nari. Behin beldur hori kenduta, sorkuntzarako tresna bilakatzen da, ikaragarriko eragina duena. Eta saiatiuko gara horrelako adibi-



Patxi Gaztelumendi, eskuinean, Jabi Zabalaekin batera Irratia.com-eko saio batean. HITZA

deak jartzen eta nola proiektu apa-letatik gauza sendoak egin daitez-keen azaltzen.

Zertan aldatu da internet hasi ze-netik?

Argi dago interneten urte bat, ko-munikazioaren historiaren men-de bat dela ia-ia. Etengabe gara-tzen ari da, baina subjektu aktiboe-netako bat erabiltzailea delako. Erabiltzaileen internet ari gara ezagutzen eta edonork garatu de-zake tresna bat, proiektu bat, eta gero hori partekatu komunitate-ekin. Alde horretatik, garapen maila oso azkarra da eta berehala gizarteratzen da eta berehala jen-deak barneratu, aldatu eta hobe-tzen du. Garapen horretan sekula-ko garrantzia izan du software as-kearen mugimenduak eta horrek jendea aktibatu eta horretan mar-txan jarri du. Zorionez internet ez

da inorena, telebista bat edo irrati bat den moduan. Internetek badi-tu jauntxoak, baina badiu pobreak ere. Niretzat guztiona izateak ere ahalbidetu du gizarteratzea, eta hori zabaltzen joan beharko da. Horrek ere sortu die kezka bati baino gehiagori, batez ere botere-an dagoenari. Borroka horretan nire ustez erabiltzailea atera be-harko da irabazle, baina horretara-ko erabiltzaileak kontziente izan behar du erabiltze huts horretatik haratago joan beharko duela. Eza-gupena irabazi ahala tresna bera ere hobeto kontrolatuko du. Tres-na komunikabide erraldoi, denda handi edo aisialdirako zentroa bi-lakatu da. Alde horretatik, nik uste dut tresnaren iraupen hori ere jen-dearen ezagupenean dagoela.

Gazteek zertarako erabiltzen dute internet?

Gazteek, haurrek eta nagusiek in-ternet erabiltzen dute bere gustu-ko gauzak egiteko. Batzuetan in-ternetek eragina du bere gustue-tan eta besteetan bere gustuek eragina dute interneten. Hiruga-rreren adinekoak ere interneten murgiltzen hasten direnean KZ-guneko ikastaro batean, liluratu egiten dira, eta bere gustuko gau-zak topatzen hasten dira. Alde ho-rretatik, antzua litzateke esatea adibidez Gipuzkoako gazteek in-ternet erabiltzen dutela ligatzeko.

«Internet etengabe garatzen ari da, baina erabiltzailea subjektu aktiboenetakoa delako»

Batzuk erabiliko dute ligatzeko, beste batzuek musika entzuteko, beste batzuek informatzeko, lana bilatzeko, bidaiatzeko... Wikipedia adibidez asko erabiltzen da etxeko lanak egiteko. Eta ikaragarria da nola erabiltzen den Wikipedia hitza gurasoen artean eskolari lotuta. Harrituta geratzen zara proiektu horrek praktikan zer bideragarri-tasun daukan ikustean.

Gurasoak zertaz arduratzen dira batez ere?

Gurasoen artean maila ezberdinak daude. Badira gurasoak interneten ordu asko ematen dituztenak, bu-blegoan edo etxean. Badira guraso-ak *Goenkale*, *Operacion Triunfo* edo *Pasalo* ikusten orduak ematen dituztenak. Baina gurasoek pan-tailaren aurrean zenbat ordu ema-ten dituzten ez da zertzen. Gura-soek horretan egon behar dutela-ko: kontsumitu dezaten komeni da telebista aurrean egotea. Eta gero gazteak zenbat ordu egoten diren pantaila aurrean kezkatzen gara. Baina ez gara kezkatzen zenbat ki-rol egiten duten edo zer jaten du-ten. Mundu honek daraman gizar-te-kontrolaren larritasunaren era-gina da hori. Planteamendua bera ziberpoliziala da. Kezkatzen baga-ra haurrek nola erabiltzen dituz-ten tresna elektronikoa dibulgatza-ile hauek, kezkatu gaitzen era be-rean eskolan jaten dutenaz, irakasleen euskara mailaz, eskola-ren egoeraz, parkeen egoeraz... Baina ez, nahiago dugu ziberpoli-zia bat sortu, horrela seguruago eta lasaia ego gaitz keelakoan.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

E Elkarrizketa

HELENA ORKOIEN › Abeslaria

Ibarra » Madrilgo Villa Colmenar Viejo Kantu Txapelketan etorkizuneko gazteen saria irabazi berri du abeslariak; «gogorra» izan zela gogoratu du eta «pozik» azaldu da.

NOELIA LATABURU

«Ja kasualitatez» eman zuen izena Villa Colmenar Viejo Kantu Txapelketan Helena Orkoienek (Ibarra, 1986) eta gazteen sariarekin bueltatu zen. Goi mailako ikasketak amaitzen ari da Donostiako Musikenen baina ez du «geldirik egoteko asmorik», izan ere bere nahia une honetan «abestea, kanpora zabaltzea» dela aitortzen du.

Zer moduz joan zen lehiaketa?

Gogorra izan zen. Kanporaketa, finalerdia eta finala izan ziren. Guztiak pasa behar izan nituen, izan ere, zuzenean finalerdietara igarotzeko, nazioarteko sari bat izan behar duzu, eta nik ez nuen. Orain jada badut nazioarteko sari bat, eta zuzenean finalerdietara igaro ahalko naiz.

Nola sentitu zinen lehiaketan?

Jende asko zegoen, 55 lagun izan ginen eta gogorra izan zen, maila altua zegoelako. Kanporaketan ia ikusi nuen zaila izango zela eta horren adierazle finalerdietara 25 lagun pasa ginelako. Epaimahaia ere adituek osatzen zuten, antzerkiko jendea, agenteak... Kantu mailan adituak zirenak. Teknika oneko ahotsen bila joan ziren. Finalera, berriz, hamar sailkatu ginen. Bostek jaso genuen sariren bat.

Eta zer lan aurkeztu behar izan zenuen bertan?

Errepertorioa bi taldetan banatu zuten. Lehen taldean bost opera aria aurkeztu nituen. Bigarren taldean lau kantu eta zartzuela bat aurkeztu daitezke. Lehen fasean norberak aukeratu zituen abestiak; bigarren fasean, erdia beraiek aukeratu zuten eta beste erdia guk. Finalera, berriz, abestu beharreko guztia epaimahaia aukeratu zuten.

Egindako lanarekin gustura geratu al zinen?

Lehen eta bigarren faseetan oso gustura geratu nintzen. Zartzuela nik aukeratu nuen eta oso ondo abestu nuen. Finalera hainbat aria errepikatu arazi zidaten eta ondo aritu nintzen. Aretoa berria zen eta oso egoera onean zegoen, akustika lehorra zuen.

Prozesu luzea izan zen, ezta?

Bai, bai. Ezinezkoa izango litzateke guztia egun berean egitea. Pentsa, 55 lagun ginen. Nire kasuan, astelehenean eta asteartean abestu nuen kanporaketan, asteazkenean finalerdia izan zen eta ostegunean finala. Larunbatean irabazle onkontzertua eman genuen. Aste bizi izan zen.



HITZA

«Gogortasunaren gaineretik, hautatu dudan bide hau gustatzen zait»

Eszenatoki gainean lasai azaldu al zinen?

Abesterako unean lasai nongoen, baina aurreko uea izaten da txarra, gainera etxetik kanpo zaude... Saiatu behar zara etxean bezala egoten baina zaila da, ia ezinezkoa; ez duzu etxean bezain gustura lo egiten, esaterako.

Beste partaideekin ondo moldatu al zara?

Oso ondo. Harritu eta guzti egin ninduen. Jende askorekin egin dut harremana, telefono zenbakiak ere elkarri eman dizkiogu. Hainbat proiektu martxan jartzeko asmoa dago, oraindik erabakitzeko. Oso esperientzia polita izan da.

Zure ustez, epaimahaiko kideek zer baloratu zuen zure emanaldian?

Ahots on baten bila zebilatzala uste dut, instrumentua erabiltzen zekienu eta, noski, egun horretan ondo abestuko zuena. Eta nik hori bete nuela uste dut. Lehen aldia zen parte hartzen nuena eta oso gustura geratu nintzen.

Eta nolatan hartu zenuen lehiaketa honetan parte hartzeko erabakia?

Kasualitatez izan zen. Astebete lehenago egin nuen, Musikenen liburuxka ikusi nuen, oinarriak irakurri nituen eta animatu egin nintzen. Egia esan, pentsatu nuen

lehiaketa txiki bat izango zela baina nazioarteko lehiaketa bat izan da eta ni ere harrituta geratu nintzen partaideen artean zegoen mailarekin.

Berezia izango zen, orduan, irabaztea.

Finalera iristea nahikoa izan zen niretzat, ilusio ikaragarria egin zidan, pentsa, negar eta guzti egin nuen. Azken bi lehiaketetan ez nuen ezer irabazterik lortu eta triste samar nongoen. Honek indarra eman dit. Hala ere, burua bere lekuan izan behar duzu. Batzuetan irabazten duzu eta besteetan ez. Epaimahaiaren arabera ere asko aldatzen da, ez dakizu zer nahi ote

duzen. Lehiaketena oso konplexua da.

Hala ere, ez da zure lehen saria.

Espainiako Gazteria Musikalaren saria irabazi nuen duela hiru urte eta Euskadiko Kantu Txapelketa, duela bi urte irabazi nuena. Ondoren, beste titulu batzuk badauzkat baina bestela ez dauzkat askoz gehiago, ez pentsa.

Baina oso gaztea zara oraindik.

Bai, hori da. 23 urte baino ez ditut eta mundu honetan 30 urteren bueltan hasten zara gauzak egiten. Ez da instrumentu batekin bezala, txikitatik has zaitzkeela lanean. Ahotsa berandu osatzen delako da hori. Lehiaketa batzutan gaztetasuna zure kontra aritzen da.

Nolatan abeslari?

Betidantik. Txikitatik gustatu izan zait abestea. Abesbatza batean hasi nintzen eta ondoren gurasoek kantutxo irakasle bat nahi nuela esan nien. Ordizian irakasle batekin hasi nintzen. Ondoren, erdi mailako ikasketekin hasi nintzen eta Inmaculada Martinez irakaslearekin egin nuen topo, eta hari esker pila bat ikasi nuen. Berak erakutsi zidan ahots ona ateratzen abesterrakoan. Egun, goi mailako ikasketak egiten ari naiz, Donostiako Musikenen, Ana Maria Sanchezekin. Hauek amaitu eta hegan egiteko gogoia daukat.

Ikasteaz gain, lehiaketa desberdinetan parte hartzen duzu, berraz.

Saiatzen naiz beti lehiaketetara eta aurkezten, ez baitu ezertarako balio goi mailako ikasketak bukatu baina gero esperientziarik ez izateak. Horretarako mugitu egin behar zara. Ateak ireki nahi ditut eta bidea ezagutzen joan. Mundu hau gero eta gehiago ezagutu gero eta zailagoa iruditzen zait. Kompetentzia handia dago eta oso gogorra da. Profesioan bertan, kideen artean gauza txar asko egiten duen jendea ere topatzen duzu. Guztiaren gaineretik, hala ere, nik bide hau hautatu dut eta hau dut gustuko. Eszenatokiara igo eta abestea, horixe gustatzen zait.

Zer sentitzen duzu, bada, une horretan?

Izugarri gustatzen zait. Eszenatokiara igo eta paperean sartzen naiz zeharo. Oraindik ez dut opera bat abesteko aukerarik izan, baina de-seatzen nago. Gustura sentitzen naiz, lasai, aske.

Etxean ikasten duzu, baina posible izango al da hemen zure bizi-tza aurrera ateratzea?

Ez, kanpora atera behar duzu. Nik oso argi daukat kanpora atera behar dudala lanbide honetan zerbait egin nahi badut. Aukerarik ez dut galdu nahi, ez dudalako ikasketak bukatu nahi eta aukerarik ez izatea abesteko. Hemen ez dut horretarako aukerarik. Alemaniara edo Italiara gustura joango nintzateke. Han aukera handiak daude nire lanbiderako. Nire nahia une honetan abestea da, kanpora zabaltzea.



14°
9°

GOIZA EURI ARRISKUA
ARRATS. EURI ARRISKUA
BEROENA 14°
HOTZENA 8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Tolosa kantari euskal kantu jira Alde Zaharreko kaleetan, Tontokaletik abiatuta, gaur 12:00etan.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Emakumeak protagonista dituen *Aurrez aurre* izeneko erakusketa interaktiboa martxoaren 3tik apirilaren 10 bitarte Aranburu Jauregian.

Mendi Irteera

■ **Ibarra.** Haitzetan Raju eta Bai Euskal Herriari herri ekimenak mendi irteera antolatu dute Lapurdira. Bihar, hilak 28, herriko plazan elkartuko dira 08:00etan. Autoz iparralderantz joango dira, Zugarramurditik Sararainoko bidea egiteko asmoz. Bazkaria bertan egingo dute, beraz, ez da hemendik eraman behar. Bi ibilbide mota antolatu dituzte: «bat laburra eta bestea laburragoa, haurrekin egiteko modukoa». Antolatzaileen esanetan izena eman beharrik ez dago. Itzulera arratsalde partean egingo dute.

Apustua

■ **Zizurkil.** Joseba Otaegi eta Alex Txikonen arteko herri kirol apustua bihar, hilak 28an, Azpeitiko zuzen-plazan 12:00etan.

Zinema

■ **Tolosa.** *Igelak eta zapoak* haurrentzako filma bihar, hilak 28, Leidor aretoan 17:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, MT Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
■ **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



'Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitza'-ren oharra irakurleei

Komunikabideak » 2010. urteko kibraketa kanpaina abian jarri du eskualdeko euskal kazetak; proiektu berria ere bidean da

ERREDAKZIOA

2001eko abenduaren 18an, eskualdeko hainbat gizarte eragileren ekimen eta babesean *Egunero* izenarekin abiatu zen Tolosaldeko euskarazko tokiko prentsaren proiektua.

2003ko otsailaren 20an, *Euskaldunon Egunkaria* indarrez itxi ziguten, horren ondorioz, 2003ko otsailaren 21etik martxoaren 20ra bitarte, *Galtzaundi* izena hartu zuen. 2003ko martxoaren 25ean, eskualdeko hainbat udal, euskara elkarte eta 77 gizarte eragile antzuten babesean, Tolosa Herria He-

dabideak, S.M. enpresa sortu zen eta tokiko euskarazko prentsari jarraipena emanez *Tolosaldeko Hitza* sortu zen. Azkenik, 2004ko maiatzak 21ean, egungo TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA jaio zen.

Gaurdaino, 1.939 zerbaki egin, inprimatu eta banatu ditugu eta gure eskualdeetako herri informazioaren erreferentzialtasun nabarmena lortu dugu, horretarako, kazetaritzaz, maketazioaz eta kudeaketaz arduratzen den lantalde profesionala dugularik. Banaketaz Exteraino banaketa enpresa arduratzen da eta publizitatea kudeatzeaz iragarri.

Kibraketa kanpaina

Tolosa Herria Hedabideek 2010. urteko kibraketa kanpainari ekin dio. Urte guztian zehar TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA etxe-

an jasotzeagatik kuota 58 eurokoa izango da.

Egunean 21 xentimoren truke (35 pezeta) gure eskualdeetako harpidedunek euren herriko eta eskualdeko berriak euskaraz jasotzeko aukera izango dute.

Euskalgintzan eta herri informazioaren proiektu honek gaurdaino lortu duena, harpidedun, bezero, komertzial eta erakundearen babeari esker izan da.

Mota eta kolore guztietako elkarte zein banakoen eta Hitzaren artean urte hauetan sortu den elkar-eraginkortasunak gure informazioa geroz eta osatuagoa izan dadin laguntzen digu.

Hori horrela izanda ere, euskaraz irakurtzea ohitu diren harpidedunak eta etorkizunean egingo diren berriak dira Hitzari bizia luzatuko diotenak, horiek dira gure oinarria.


Sariak

Orain arte kontu korronte zenbakia eman dutenen eta egun hauetan ematen digutenean artean, Tolosako Sausta jatetxean bi pertsonentzako otordua zozketatuko da. Era berean, orain arte giltza eman dutenen eta orain ematen dutenen artean, Lur Lan Nekazari Elkarte-ko saski berezi bat zozketatuko da.

Finantza krisia eta prentsaren krisiari aurre egiteko gogotsu; harpidedun nahiz bestelako euskaltzaleei deia

Zailtasunez beteriko garai ekonomikoa bizi dugun honetan, eta prentsa idatziaren sektoreak berak bizi duen ezegonkortasuna ere kontutan hartuz, gure lan egiteko modua goitik behera birplanteatzeari ekin diogu; Tolosa Herria Hedabideak baita eta Euskarazko Komunikabidea Taldearen barnean, aurrera begira euskarazko komunikazioa erakargarriagoa eta ekonomikoki bideragarriagoa egiteko lanean.

A Agurrak



Zorionak!

Laia eta Enara Sanz Mantxo (5 eta 3 urte).

Zorionak potxolis! Txokolatezko muxuak gure printzesei!

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:

Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N.A.:

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P.K.:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia: